



# ARANTZALIAREN OTOYA

---

Egun berriak itxas zabala  
margo beriz azaltzean,  
ta Andutz mendia oni begira  
eguzkiz janzten danean,  
ta zuaztitik txori-abesak  
beren lotatik itxañtu,  
baita artzai-mutil itziañtañak  
artaldean mendiratu,  
Deba'ren aurrez itxas barean  
txalopa dager geldirik,  
nola umetxoa bere amaren  
magalean lo-arturik.

Geldi-geldirik, txalopatxua  
ur-azal oztin garbian,  
gora dijoan eguzkiaren  
izpi dizkizkoñ-artean  
oar geltsu ta gozatsua da  
ikuskitxun ederean...  
edo leñotxo beltz, ikuñkoña  
eleski zoragañian.

Begira ditu Arno ta Andutz,  
baita inguruko muñatzak;  
zelai lilitsu, sagasti edeñ,  
solo, basetxe ta landak;  
begira ditu zuaitzetatik  
txoñotxioka txoriak:

begira ditu pozaren-pozez  
donoki-goitik gotzonak,  
dantzubelako txalopatxotik  
igon dan otoi samur bat:  
Ene Itziar'ko Ama biguna,  
(dio arantzale onak)  
Goiz ontan zeutzat agur gozoa  
dauka nere maitasunak,  
ainbat zorion demayo bada  
Zuganako itxaropenak.

Egun beria Jaunak maitari  
argitutzeaz bafian,  
zure txadon ori Andutz-oñean  
ager-zait begi-aurrean;  
gogoaz zakust Neskutz edera,  
Itziar'ko bakaulkian,  
bitartekotzat jartzen zerala  
Jainko ta neure artean.

Orengatikan itxaropenaz  
itxas onetatik dei-zaitut;  
nere bizia ta uste nere,  
¡Miren! ¡Zugan jartzen ditut!  
Eta nere gain jeikiko ba'litz  
ekaitz gogor ixukora,  
lagun eidazu, ¡o Ama gozo,  
itxasoko Izañ edera!  
deiturik maitez Zeure altzoko  
kai eskier oretara.

. . . . .  
. . . . .

Arantzaleak bere otoa  
amaitutzeaz batera,  
irabioka duaz gotzonak,  
an, Miren'i aurkeztera...  
Ama gozoak ontzat arturik  
otoya, seme onari,  
Itziar-goyan eskiñi zaigu  
itxas-gizonen Zaindarii

TENE.